

## B16

### Egun batean nendorrela...

Poema honen hasiera (1-91 bertso-lerroak) 1181r, 1182r eta 1183r funtsean orrialdeetako eskuineko aldeetako zuriuneak erabilia idatzi da. Hurrengo orrialdeetako eskuineko aldeetan nahikoa lekurik ez zegoenez, 2001r orrialdeko kokagune berera joan da gero (91-110 bertso-lerroak). Ondoren, parean geratzen zitzaion 1200v orrialdeko zuriuneetan idatzi ditu hurrengo bertso-lerroak (111-130). Azkenik, 1201v orrialdeko eskuineko aldeko zuriunea erabili du azken ahapaldiak idazteko (131-153 bertso-lerroak).

Dena den, poemako azken ahapaldia osatu gabea da (gutxienez bi bertso-lerro eskas dira), eta, dirudienez, amaitu gabe dago (nahiz orrialde horretan bost lerroak osatzeko zuriune garbia izan). Zalantza dugu, adibidez, B13 eta B24 poemetako bertso-lerroak poema honen bertso amaitugabeari dagozkion ala honekin loturarik gabeak diren. Izan ere denak ditugu gaztelaniaz *quintilla* deitzen den ahapaldi motakoak: bost bertso-lerro oktosilabo, abaab errima-egiturarekin. Bestalde, gaztelaniazko B7 (*Maior que mi sufrimiento...*) poeman, halako biz osaturiko hamarreko edo dezimak daude (gogoratu B7 ez dela Lazarragak sortua, Lazarragak kopiatua baino).

Zaldun baten eta dama baten arteko elkartzea eta elkarrizketa dira poemaren muina. Zalduna *zaldun ibiltari* arketipikoa da, bidez bide alderrai dabilena (1-20 bertso-lerroak). Bidean galduta dabilela, dama eder bat aurkitzen du, hau ere erabat arketipikoa (ederra eta ondo apaindua), hizketan ekin eta zalduna mirarrituta uzten duena (21-65 bertso-lerroak). Zaldunak berehala agertzen dio mendekotasuna damari (66-80 bertso-lerroak), eta, damaren galderei erantzunez, aitortzen du maiteminez dabilela alderrai, beste dama bat zerbitzen, basorik baso, bakarrik, itsututa (81-135 bertso-lerroak). Dama ezagutu berriak, errukiturik edo, bere ondoan atsedean hartzera gonbidatzen du (136-150 bertso-lerroak)... eta poema etenik geratzen da, gehiagokorik gabe.

<1181r>      Egun batean nendorrela<sup>1</sup>  
                   bide estrecho<sup>2</sup> batean,  
                   escu batean necarrela

<sup>1</sup> *nendorrela*: ‘nentorrela’; aditz-erroaren ahostuntzea dela-eta, ikusi halaber *nengusun* (A26: 56) eta *nendorrela* (B16: 1).

<sup>2</sup> *estrecho*: ‘estu’; cf. Lcc “estrecha cosa, *gauça estrechua, estua*”, *estua* geroago erantsita. Lazarragaren eskuizkribuan bada *estu*, baina ez zentzu fisikoan: *estuetan* (A17: 13), *estu oy bearco dau* (A24: 59) eta *contu estua* (B28: 13). Dena den, hemen forma mailegatua hautatzea erlazonaturik izan daiteke *camino estrecho* XVI-XVII. mendeetako gaztelaniazko narrazioetako *locus* tipikoa izatearekin.

calçaidu <sup>3</sup> usez erroдела <sup>4</sup>	
çaldi on baten gañean,	5
banecarren <sup>5</sup> escu bestean <sup>6</sup>	
listra <sup>7</sup> onezco dardoa, <sup>8</sup>	
adarga <sup>9</sup> on bat arzoan, <sup>10</sup>	
arnes <sup>11</sup> fortiça <sup>12</sup> gorpucean,	
coraçaacaz cascoa. <sup>13</sup>	10

<sup>3</sup> *calçaidu*: ‘altzairu’.

<sup>4</sup> *erroдела*: ‘erredola’; cf. *DAut*, s.v. *rodela*: “Escudo redondo y delgado que, embrazado en el brazo izquierdo, cubre el pecho al que pelea con espada”.

<sup>5</sup> *banecarren*: *ba-*, Lazarragaren eskuizkribuan, aditz aurreko soila da batzuetan, eta ez du nahitaz galdegaia markatzen; hala da poema honetako B16: 6, B16: 14, B16: 51, B16: 54, B16: 84, B16: 95, B16: 104 eta B16: 141 lerroetan.

<sup>6</sup> *escu bestean*: ‘beste eskuan’; Lazarragak gehienetan izenaren ezkerrean idazten du *beste*, baina hiru aldiz ezarri du izenaren eskuinean: *bici beste bat* (A8: 23), *gaztigu besteric* (A28: 146), *escu bestean* (B16: 6). *OEHN* ez dugu aurkitu hitz-ordena horren erreferentziarik, baina lekukoturik zegoen *Arrasateko erreketan* (TAV 3.1.7): *uraz alde bestean*; hitz-ordena horren aztarnak dira *erbeste* eta *Etxebeste* hitzetan ere.

<sup>7</sup> *listra*: ‘marra’ edo ‘xingola’; Lazarragaren garaiko gaztelaniazko testuetan *listra* aurkitu dugu (*CORDEn* behin *listra*, eta hiru bider *listrado*) *lista* hitzaren aldaera gisa (portugesez eta italieraz bezala). *Lista* hitzaren jatorrizko esanahia ‘xingola’ zen, eta gero ‘marra’; hemen, edozein kasutan ere, xingola nahiz marra apaingarria izango litzateke, zaldun ibiltariak lantza ondo apaindurik daramala adierazteko.

<sup>8</sup> *dardoa*: ‘lantza’; normalean *dardoa* euskaraz ‘azkona’ izaten den arren (cf. B15: 26), hemen lantza luzea izan behar da ezinbestean, hori baita zaldunak eskuan eraman ohi duena.

<sup>9</sup> *adarga*: ‘larruzko ezkutu’; cf. Lcc “adarga de cuero, *adarguea*”. Cf. *DAut*: “Cierta género de escudo compuesto de duplicados cueros, engrudados y cosidos unos con otros, de figura quasi oval, y algunos de la de un corazón; por la parte interior tiene en el medio dos asas, la primera entra en el brazo izquierdo, y la segunda se empuña con la mano...”

<sup>10</sup> *arzoan*: ‘zelako zurean’; *arzo* ez dugu aurkitu *OEHN*, baina cf. *DAut*, s.v. *arazón*: “El fuste trasero y delantero de la silla de la caballería, que sirven de afianzar al jinete, para que no se vaya adelante ni atrás”.

<sup>11</sup> *arnes*: ‘armadura, burdin jantzi’; cf. *DAut*, s.v. *arnés*: “Armas de acero defensivas, que se vestían y acomodaban al cuerpo, enlazándolas con correas y hebillas, para que le cubriese y defendiese”.

<sup>12</sup> *fortiça*: ‘bortitza, sendoa’; *OEHN*ren arabera Gerriko dateke aldaera honen lehen agerraldia. Orain arte G eta GN-n zegoen dokumentaturik, eta ekialderago ere bai. Lazarragaren eskuizkribuan sei aldiz dago (A14: 18, A16: 81, A24: 153, A28: 50, B15: 97, B16: 9).

<sup>13</sup> *coraçaacaz cascoa*: ‘korazak eta kaskoa’; “Xgaz Y” egitura da, “Xrekin Y” egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko.

Ikusi, bestalde, *-aacaz* bukaera (*-aak* + *-gaz*). Mendebaldeko zenbait testu zaharretan (Kapanagarena eta Frai Bartolomerenak, kasurako) inesibo singularreko eta absolutibo pluraleko markak (*-an* eta *-ak*) izenari erabat asimilatu gabe geratzen dira. Lazarragaren eskuizkribuan ere hala gertatzen da kasu horietan, *-a* amaieradun hitzetako bokal bikoitzek salatzen dutenez: absolutibo pluralean *bervaac* (AL:

Conpañiaçat tristurea

ascotan leguez arturic,

guiaçat barriz benturea,<sup>14</sup>

baneroean<sup>15</sup> echurea,<sup>16</sup>

chitez<sup>17</sup> guztiau<sup>18</sup> galduric.

15

Neroeala forma onetan

bioçau guztiz tristea,

nic ez nebela pensaetan

---

1143r, AL: 1153r), *donzellaac* (AL: 1143v), *erroppaac* (AL: 1144v), *capaac* (A23: 53) eta *quexaac* (B20: 12) ditu eskuizkribuak; beste horrenbeste adibide ditu salbuespen direnak, ordea: *armac* (AL: 1153r, B30: 23), *ezpatac* (AL: 1153v), *bervac* (AL: 1154v), *coplac* (A8) eta *labradurac* (B33: 12). Ergatibo pluralean bi adibide konparagarri ditugu, *doncellac* (AL: 1154v) batetik eta *ayta-amaac* (A21: 11) bestetik. *canpaac* (A28: 57) salbuespen den ala ez ezin da ziur baieztatu, ez baitakigu oinarrizko forma *canpa* ala *canpaa* den (Landuccik *campae* dakar: “badajo de campana, *campae mia*”); *nescac* (B5: 25) ergatibo plurala bada, beste adibide monoptongo bat genuke bertan (ikus, hala ere, dagokion oharra). Inesiboari dagokionez, lau aldiz agertzen dira forma erabat asimilatuak: *conquistan* (AL: 1145v), *figuran* (AL: 1146r), *provincian* (AL: 1146v) eta *ausencian* (A27b: 6); asimilatu gabeko bokala duten adibideak, aldiz, hiru dira: *Domecaan* (A7: 107), *arcaan* (A24: 27) eta *plaçaan* (B5: 83).

<sup>14</sup> *benturea*: ‘abentura’.

<sup>15</sup> *baneroean*: ‘neraman’; Mendebaldeko testu zaharretan, deklinabide mugatuan bezala, *a + a > -ea* disimilazioa gertatzen da adizki jokatueta ere, *-an / -ala* atzizkiak gehitzean: *doa + -an > doean* (RS), *daroa + -an > daroanean* (VJ) (cf. FHV 115). Hona Lazarragaren eskuizkribuan bildu ditugun adibideak: *joean* (AL: 1138v, B30: 6), *cirean* (AL: 1142v, AL: 1144r, AL: 1146v, AL: 1152r, AL: 1153v, A11: 13, A11: 17, A26: 120, A28: 100), *direan* (AL: 1147v, AL: 1152r, A1: 15, B15: 62), *çarean* (AL: 1152v, A12: 16, A17: 111, B3: 65, B16: 31, B16: 44), *guinean* (A7: 8, B16: 86), *cinéan* (A26: 94, A26: 156), *neroean* (B16: 14), *cireala* (AL: 1145r), *joéala* (AL: 1147r), *çareala* (AL: 1151r), *direala* (AL: 1152r), *neroeala* (B16: 16), *eroeanari* (A29: 74), eta *-ea- > -ia-* aldaketarekin *dirian* (B28: 15). Ohar gaitezen Landuccik aditz gutxi dakarrela eta zaila dela gertakizun honi buruzko ondoriorik ateratzea, baina bada adibide bat behintzat iradokitzen duena Landuccirenean ez bide dela halakorik gertatzen (“antecedente, *aurrera doana*”).

<sup>16</sup> *echurea*: ‘itxura’; itxura hori zelakoa den azaltzeko dago hurrengo lerroa.

<sup>17</sup> *chitez*: ‘txit, oso’; *OEH*ren arabera eskuizkribu honetakoak lirateke lehenengo lekukotasunak (ikusi, orobat, *chitez* B16: 129 eta *chichitez* B21: 78).

<sup>18</sup> *guztiau*: ‘neure burua’. Hirutan dakar eskuizkribuak *guztiau* sintagma, bitan bestelako izenlagunik gabe (*guztiau çurea nax ta* A5: 9, *baneroean echurea / chitez guztiau galduric* B16: 14-15), eta hirugarren batean (*ene guztiau ceure eguin eguiçu* A17: 27) genitiboazko izenordain batekin; hiruretan du esanahi bera. Beste zenbait testutan (mendebaldekoetan nagusiki) ere badira halakoak, *Klasikoen gordailu*aren arabera: Juan Antonio Mogelen *Opa natxatzu*, *Jauna nasan guztiau*, *ta ni al daidan guztia*, Olaetxearen *ara emen neu guztiau Zeurea*, *artu nagizu*, *Salba nagizu*; batere izenlagunik gabeko bi adibide aurkitu ditugu: Uriarteren *Nere negarra pozean itzuli ziñidan*, *urratu zenduen nere zilizioa*, eta *guztiau gozotasunez inguratu ninduzun* eta Maitasunezko poesia *vaquiçu zurea orain gustiau naçana* (Contr. 88, 17).

guero necusen<sup>19</sup> gauçæetan,  
erratu neben bidea. 20

Ribera baten<sup>20</sup> eldu ninçan,  
gutzizco aleguerea;<sup>21</sup>  
neure buruau gora neçan;<sup>22</sup>  
dama eder bat topa neçan,  
autoridadez<sup>23</sup> betea. 25

Neurau exilic nengoala,  
berac esadan<sup>24</sup> berbea:  
“Ongui etorri çareala<sup>25</sup>  
errazoa da<sup>26</sup> dasadala,<sup>27</sup>  
guiçon armatu gaztea. 30

<1182r> Nungo<sup>28</sup> çarean esadaçu,

<sup>19</sup> *necusen*: ‘ikusi nituen’; *ecusi* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa.

<sup>20</sup> *baten*: ‘batera’; Lazarragaren eskuizkribuan, *el(du)* ‘iritsi’ aditzaren osagarria beti dago inesiboan (-n) eta ez adlatiboan (-ra). Ikusi, halaber, B16: 53 bertso-lerroa.

<sup>21</sup> *gutzizco aleguerea*: Kasu-komunztadurarik ez duen arren, *ribera* da *gutzizco aleguerea*, ez zalduna.

<sup>22</sup> *gora neçan*: ‘goratu nuen, altxatu nuen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>23</sup> *autoridadez*: ‘handientzaz, hotsandiz’; cf. *DAut*, s.v. *autoridad*: “Significa tambien ostentación, aparato, fausto, magestad, señorío, gravedad, assí en el modo de obrar, como en el decoro y representación de alguno”.

<sup>24</sup> *esadan*: ‘esan zidan’; *esan* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa.

<sup>25</sup> *çareala*: ‘izan zaitzela’; *izan* aditzaren subjuntibo zaharra da.

<sup>26</sup> *errazoa da*: ‘arrazoi da, arrazoizko da, bidezko da, konpli da’; *errazoa* aldaerari buruz, ikusi *OEhk* dioena (s.v. *arrazoi*): “en *VJ*, Capanaga y Olaechea hay *errazoa*, y formas con cierre de -o- en msOñ (*errazue*) y fray Bartolomé y Astarloa (*errazua*)”. Hiru aldiz ageri da *errazoa da* esapidea eskuizkribuan, eta hirurak B16 poema honetan (B16: 29, B16: 72, B16: 78). Artikulu falta esapide izaera horri egotz dakioke; *CORDE* datu-basean, gainera, ugariak dira garai horretako gaztelaniaz *es razón* esapidearen adibideak, artikulurik gabeak horiek ere.

<sup>27</sup> *dasadala*: ‘esan dezadala’; *esan* aditzaren subjuntibo trinkoa.

<sup>28</sup> *Nungo*: Bost aldiz ageri da eskuizkribuan *non* galdetzaila leku-genitibo kasuarekin, funtzio predikatiboan; horietako lautan artikulurik gabe: *nungo direan esaten dave* (A1: 15), *Beguiratu бага çuc ni nor naxan*, / *salvo çu ceurori nungo çarean* (B3: 54-65), *Nungo çarean esadaçu* (B16: 31), *çu nungo çarean*, *ni bere ang*o (B20: 19). Artikuluarekin behin ageri da, aditzaren ondotik den bakarrean: *Çu baçarade serbietan / jaçuiten naxan nungoa* (B16: 91-92). Artikulurik gabeko erabilera hau gaur egun ekialdean baizik ez da entzuten. Funtzio predikatiboan beste hirutan baizik ez ditugu aurkitu -ko /

bada al didin gaucea;<sup>29</sup>  
 ceure beguioc irecaçu;<sup>30</sup>  
 descubriduric jafindaçu<sup>31</sup>  
 apelliduaz nonbrea.<sup>32</sup> 35

Eceren losa-bildur baga  
 esaçu ceure benturea,<sup>33</sup>  
 cer gaxaesun<sup>34</sup> edo cer llaga,  
 cerren diçudan<sup>35</sup> bereala  
 curaetaco recetea. 40

Nic diosudan berbaetan  
 duda efinten badoçu,  
 ni ez banauçu sinisquetan,  
 bici çarean egunetan  
 çuc beti damuco doçu”. 45

Ribera artan nesca oa<sup>36</sup>

---

-go leku-genitibodun sintagmak: *çu nungo çarean, ni bere ango* (B20: 19) artikulugabea, baina *ni banax Arabacoa* (B16: 95) eta *edoceynec gura leuque / angoa bere suyña* (B34: 3-4); berriz ere, forma artikuludunak perpausaren elementuen ordena hurrenkera kanonikotik aldentzen denean agertzen dira.

<sup>29</sup> *bada al didin gaucea*: ‘(egin) ahal dadin gauza bada, egin ahal den gauza baldin bada, ahal izanez gero’.

<sup>30</sup> *irecaçu*: ‘ireki itzazu’.

<sup>31</sup> *jafindaçu*: ‘ipin iezadazu’; *ifini* aditzaren agintera trinkoa, NOR-NORI-NORK sailekoa. Halako hamabi aurkitu ditugu Lazarragaren eskuizkribuan: *efinçu* (A16: 59), *jafindaçu* (A17: 44, B16: 34), *ce nafinçu* (A17: 60), *dafinquet* (A24: 27), *ez difinçuen* (A27: 4), *badafinçu* (A27: 41), *ifinçu* (A28: 172), *dafinela* (A28: 175), *nafinçu* (B3: 70), *nafinela* (B4: 4), *ce efinçu* (B5: 83).

<sup>32</sup> *apelliduaz nonbrea*: ‘apellidua eta nonbrea, abizena eta izena’; “X(ga)z Y” egitura da, “Xrekin Y” egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko.

<sup>33</sup> *ceure benturea*: ‘zer gertatu zaizun’.

<sup>34</sup> *gaxaesun*: ‘gaixotasun’; hitz honek bi agerraldi ditu eskuizkribuan (AL: 1151r eta B16: 38), baina hemendik kanpo ez dugu beste inon aurkitu. Dena den, hitzaren historia asmatzea ez da zaila: *gaxo* + *asun* > *gaxaasun* > *gaxaesun*.

<sup>35</sup> *cerren diçudan*: ‘eman diezazudan’; \*-in- erro zaharreko adizkia; helburuzko perpausa da, “zerren + subjuntiboa” egiturarekin.

<sup>36</sup> *oa*: ‘hura’; *OEhk* ez dakar aldaera hau; cf. s.v. *hura*: “**hura** (G, AN, L, BN, S, R-uzt; SP, Urt I 495, Ht *VocGr* 373 y 337, Lar, Añ (G, AN), Gèze), **ure** (G-azp-goi-nav, AN-larr-5vill-ulz-erro-gulina, B), **hua** (G-to-bet-nav, BN-arb-ad, S), **ue** (G-goi, AN-larr), **aura** (V-gip, G-azp), **ga** (Ae), **gura**, **kura** (Sal, R),

- bacochic<sup>37</sup> necusenean,<sup>38</sup>  
 razonamentu dulce oa  
 forma artan da<sup>39</sup> alacoa  
 ayn laster eguidanean,<sup>40</sup> 50
- neure beguioc baneguian  
 aregan laster fixadu;  
 nun eldu ninçan ez nequian;  
 aren ederrac<sup>41</sup> banenguian  
 consoladu ta turbadu. 55
- Terciopelo<sup>42</sup> berdez egoan  
 gorpuz guztian janciric;  
 leona baten costadoan  
 jarriric leguez baegoan,  
 cristalez coronaduric;<sup>43</sup> 60
- <1183r> arpa eder bat escu bietan,  
 figuraz esculpiduric  
 urregorizco tablaetan;<sup>44</sup>  
 biboracho bat bularretan,
- 
- ore* (AN-ulz-gulina). Ref.: Bon-Ond 169; A (*ura, kura, ga*); Iz Ulz (*ore*); Etxba Eib (*aura*); EAEL 147, 152”.
- <sup>37</sup> *bacochic*: ‘bakarrik’.
- <sup>38</sup> *necusenean*: ‘ikusi nuenean’; *ekusi* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa.
- <sup>39</sup> *da*: ‘eta’.
- <sup>40</sup> *eguidanean*: ‘egin zidanean’; *egin* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa.
- <sup>41</sup> *ederrac*: ‘edertasunak’; adiera honen lekukotasunak, *OEH*ren arabera (s.v. *eder* II), geroagokoak ziren: “Documentado desde mediados del s. XVII al Norte y desde mediados del s. XVIII al Sur”.
- <sup>42</sup> *Terciopelo*: Eskuizkribuan bereizita idatzi da (*tercio pelo*); Lazarragaren garaiko gaztelaniaz ere aurkitu ditugu halakoak (hamar agerraldi *CORDE*n 1650 arte), baina lotuta (*terciopelo*) idaztea zen guztiz ohikoena (1887 agerraldi, epe horretan).
- <sup>43</sup> *cristalez coronaduric*: Luis Carrillo y Sotomayorren poema batean (a. 1610, “Canción XI”) aurkitu dugu, eguzkiaz eta itsasoaz diharduelarik, *de cristal coronado* bertso-lerroa (*apud CORDE*): “vuelve a mirar su Oriente, / de su beldad viudo y su tesoro, / de cristal coronado, / cual rey hermoso del cristal salado”.
- <sup>44</sup> *tablaetan*: ‘hots-kutxetan’; harparen hots-kutxari esaten zaio *tabla* edo *taula harmonikoa*; hortaz, harparen atal hori urrezkoa zen eta irudiz apaindua zegoen.

collare leguez janciric.<sup>45</sup>

65

Apea nindin<sup>46</sup> çaldirean;<sup>47</sup>guchi bat<sup>48</sup> apartaduric

berba neguion lurrerean,

neurau nengoan lecorean

reberencia jaguinic:<sup>49</sup>

70

“Umilladuric eguiten dot

errazoa dan<sup>50</sup> gaucea:

oñ-escuetan besacen dot;

daquidan leguez<sup>51</sup> esaten dot,

<sup>45</sup> *biboracho bat bularretan*, / *collare leguez janciric*: Urkizuk oharrarazi zuen bezala, Piero di Cosimok margotutako Simoneta Vespucciren irudia (c. 1480), Berpizkunde garaiko erretratu ospetsua, gogorarazten du suge itxurako lepokoak. Edo, era zabalagoan, Kleopatraren ikonografia.

<sup>46</sup> *Apea nindin*: ‘jaitsi nintzen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>47</sup> *çaldirean*: ‘zalditik’.

<sup>48</sup> *guchi bat*: ‘apur bat, piska bat’; cf. Lcc “poco después, *gutibat gero*”, “quasi, *guti batez*”.

<sup>49</sup> *reberencia jaguinic*: ‘hari erreberentzia eginik’; *Jagui-* hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Askotan aditz trinkoa edo beregaina da, baina laguntzaile gisa ere agertzen zaigu, partizipioa aditz nagusizat harturik. Bestalde, gehienetan aditz jokatu gabea iduri du: *Jri remedio emun jaguif* (AL: 1138r), *Nachaçu suplicaetan nay daquiçula, ene peneau oneyn andia dan azquero, remedioa emun jaguiten* (AL: 1152r), *eta prometidu even biac ez alcarri ichi jaguïteco, arean da Sirena ta Silvia idoro artean* (AL: 1152v), *cegaiti artu ez daiquean / oy beste servidoreric; / oy alcançadu daiqueano / ez artu jaguin celoric* (A14: 99-102), *Orain dama bat servietan dot, / lindea parebaguea; / oy eztauco meresciduric / niganic ancietea / eguin deustan mesedeac / servidu jaguin artean* (A24: 131-136), *Jaun Cerucoac / çuri bidaldu jaguinic; / adietaco / badeçu miramenturic, / ez consentidu / ceure lurrean gaxtoric* (A28: 165-170), *Aren aoti berba oa / neguianean aditu, / reberencia jaguïteco / belauonc neben incadu* (B12: 13-16), *Apea nindin çaldirean; / guchi bat apartaduric / berba neguion lurrerean, / neurau nengoan lecorean / reberencia jaguinic* (B16: 66-70), *Beti nabil caso au dala / trabajadua azquero, / inox dicharic eztudala / bencedoreçat atabala / jo jaguïteco sendoro* (B16: 111-115), *guztiay berba jaguinic* (A29: 50), *modu onetan / oyta berba jaguinic* (A29: 79-80). Edozein kasutan, beti agertzen da iragankor gisa eta datibozko argumentu batekin. Uste dugu aditz ezezagun horren azpian *egin* aditzaren forma hirupertsonala (NORK-NORI-NOR) ezkututzen dela.

<sup>50</sup> *errazoa dan*: ‘arrazoi den, arrazoizko den, bidezko den, konpli den’; *errazoa* aldaerari buruz, ikusi OEhk dioena (s.v. *arrazoi*): “en VJ, Capanaga y Olaechea hay *errazoa*, y formas con cierre de -o- en msOñ (*errazue*) y fray Bartolomé y Astarloa (*errazua*)”. Hiru aldiz ageri da *errazoa da* esapidea eskuizkribuan, eta hirurak B16 poema honetan (B16: 29, B16: 72, B16: 78). Artikulu falta esapide izaera horri egotz dakioke; *CORDE* datu-basean, gainera, ugariak dira garai horretako gaztelaniaz *es razón* esapidearen adibideak, artikulurik gabeak horiek ere.

<sup>51</sup> *daquidan leguez*: Behin baino gehiagotan dago eskuizkribuan “aditza + *-na leguez*” (AL: 1142r, 1151v, A17: 109, B5: 27); baina badago “aditza + *-n leguez*” ere (B4: 1, B16: 74).

donzella coronadea,	75
obedescidu daguidala nic çure mandamentua; errazoa da naturala <sup>52</sup> neure aoaz dasadala itaundu jatan casua”.	80
Jagui çan bere sillarean, nic au esan da bertati; <sup>53</sup> artu ninduan escorean, baguioancen <sup>54</sup> arerean <sup>55</sup> floresta <sup>56</sup> baten erditi.	85
Jarri guinean berbaetan rosale <sup>57</sup> baten parean; asi ninçacan contaetan nola ninduen penaetan gauça bic biocerean:	90
<1201r> “Çu baçarade serbietan jaquiten <sup>58</sup> naxan nungoa, <sup>59</sup>	

<sup>52</sup> *errazoa da naturala*: ‘arrazoi da, arrazoizko da, bidezko da, konpli da’; ikus 72. lerroko oharra.

<sup>53</sup> *esan da bertati*: ‘esan eta berehalakoan’.

<sup>54</sup> *baguioancen*: ‘joan ginen’; *joan* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa.

<sup>55</sup> *arerean*: ‘handik’; Lazarragaren eskuizkribuan, *arean* ablatibo zahar sinplea (AL: 1143r, A24: 82 eta *areanche* A27: 33), *arerean*, hartatik eratorria (B12: 18, B16: 84 eta B16: 138) eta *arereanic*, eratorriaren pleonastikoa (A24: 130, B5:71), hirurak aurkitu ditugu, bai eta *aric* (B33: 26) ere.

<sup>56</sup> *floresta*: ‘baso sarri’; zaldungo-liburuetan zabaldu zen, gaztelaniaz, *floresta* hitzaren erabilera.

<sup>57</sup> *rosale*: ‘arrosondo’; hitz-bukaeran *-e* paragogikoa duen *-le* bukaerarekin (*rosal / rosale*), gutxienez lau hitz aurkitu ditugu eskuizkribuan: *naturale* (AL: 1147v), *arbole* (AL: 1153r), *originalea* (B5: 96) eta *rosale* (B16: 87), baina bada *naturala* (B16: 78) ere. Cf. baita Lcc “naturalmente, *naturalea leguez*”, “animal, *animalea*”, “árbol, *arbolea*”, “brotar los árboles, *arboreac brotadu*”, “canal de tejado, *telladuco canalea*”...

<sup>58</sup> *Çu baçarade serbietan / jaquiten*: ‘zuk nahi baduzu jakin’; cf. *DAut*, s.v. *servirse*: “Agradarse de alguna cosa, quererla o admitirla con gusto. Úsase en el estilo cortesano, quando se suplica o pide a



bardin<sup>60</sup> badoçu adietan<sup>61</sup>  
 erri<sup>62</sup> artaco berbaetan,<sup>63</sup>  
 ni banax<sup>64</sup> Arabacoa. 95

### Copla

Urte ascotan bici banax,  
 ecin nagoque<sup>65</sup> ara baga;<sup>66</sup>  
 bardin da uste dodan banax,<sup>67</sup>  
 neure icenaz nonbraeta<sup>68</sup> nax  
 amoradua dicha baga.<sup>69</sup> 100

---

alguno que execute algo”. Eskuizkribuan zazpi aldiz aurkitu ditugu halako esamoldeak: *servidu içaten liçala* (AL: 1142v), *çu baçarade servicen* (AL: 1144v), *servicen bada* (AL: 1147r, A3: 25), *servidu jaguin artean* (A24: 136), *servidu bada* (B4: 5), *çu baçarade serbietan* (B16: 91).

Bestalde, Lazarragak, *-de-* morfema iragangaitzetako NOR argumentuaren pluralgile bezala erabiltzen du. Bost aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan: *çarade* (AL: 1144v, B16: 91), *dirade* (A1: 52), *çagode* (A5: 2), *çaucidenean* (A16: 86), *gabilçaden* (A17: 93), *çabilçade-* (B16: 147). *-te-* morfema, ordea, iragangaitzetako NORI eta iragankorretako NOR argumentuen pluralgile bezala agertzen da eskuizkribuan: *ecarten* (AL: 1153r, AL: 1154v, A1: 37), *liçatela* (AL: 1154v), *egotela* (AL: 1154v), *darabilte-* (A1: 47, A24: 87), *deustet* (A17: 9), *jate* (B3: 77), *eusten* (‘zien’ nahiz ‘zioten’, *passim*).

<sup>59</sup> *naxan nungoa*: Errimatu beharrak eragin du, ziur aski, hiperbatoia.

<sup>60</sup> *bardin*: ‘baldin’; Lazarragaren eskuizkribuan 11 aldiz aurkitu dugu *bardin*. Horietako batean bakarrik (AL: 1145v) du zalantzarik gabe gaurko ‘berdin’ esanahia, ‘berdintasuna’ adierazten duena; hiru aldiz (AL: 1151r, A25: 8, A27b: 7) ‘dena den, nonbait, beharbada, seguru aski’ adierazten du, gure ustez (cf. *OEH*, s.v., “de todas maneras, en cualquier caso” eta “probablemente, quizás”); behin (A12: 11) zalantza dugu bi adiera horietako zein ote duen; eta, azkenik, sei bider adierazten du baldintza (AL: 1172r, A24: 5, B15: 82, B16: 93, B16: 98, B21: 101).

<sup>61</sup> *adietan*: ‘aditzen, ohartzen, konturatzen’.

<sup>62</sup> *erri*: ‘lurralde, herrialde’; cf. Lcc “conquistar tierras, *erriac yrabaçi*”.

<sup>63</sup> *berbaetan*: ‘hitz egiteko moduan’.

<sup>64</sup> *banax*: ‘naiz’; *ba-*, Lazarragaren eskuizkribuan, aditz aurreko hutsa da batzuetan, eta ez du nahitaez galdegaia markatzen.

<sup>65</sup> *ecin nagoque*: ‘ezin izango naiz egon’; egon aditzaren geroaldi trinkoa.

<sup>66</sup> *ara baga*: ‘hara gabe, hara joan gabe’; Etxeparek eta Axularrek ere erabili zuten egitura hau, baina Hegoaldeko testuetan ez dugu aurkitu Lardizabalenera arte.

<sup>67</sup> *bardin da uste dodan banax*: Esaldia ez da ondo ulertzen. Ohar paleografikoan aldeztutako *uste* irakurketarekin, bi interpretazio-aukera ikusten ditugu, baina biek ere arazoak dituzte: 1) ‘baldin eta uste dodan legez banaiz’; *legez-*en elipsi bitxia onartu beharko genuke. 2) ‘baldin eta uste dodana banaiz’; kasu honetan, *-a* artikulua faltan dela onartu beharko litzateke.

<sup>68</sup> *nonbraeta*: ‘nonbraetan’; *-n* galdu du, testuinguru fonetikoarengatik (*n-* hurrengo silaban).

<sup>69</sup> *amoradua dicha baga*: Ohar paleografikoan ikusten denez, *Joan Perez de Lazarraga* izan zen bertso-lerro honen lehenengo bertsioa (tatxatua) eta hori berori idatzi da azkenean ere (*amoradua dicha baga* tatxatu gabe); halere, ezinbestekoa da testuan *amoradua dicha baga* agertzea, eta ez *Joan Perez de Lazarraga*, B16: 101eko *Amore orrec* hitzek erreferentzia izan dezaten. Ondoren datozen 12 bertso-

Amore orrec il eguidan  
 çaguita batez vioça;  
 libertadea gal equidan,<sup>70</sup>  
 aren ordeco baeguidan  
 prendatan echi<sup>71</sup> içoça. 105

Aguindu cidan<sup>72</sup> neguiala  
 dama eder bat servidu;  
 arc<sup>73</sup> niri, barriz, leguidala<sup>74</sup>  
 gabaz-egunaz alabala<sup>75</sup>  
 contrarioçat<sup>76</sup> seguidu. 110

<1200v> Beti nabil caso au dala<sup>77</sup>

---

lerroak (B24) ziur aski amaitu gabeko zirriborroa dira, eta nahiago izan dugu aparteko poema-zati amaitugabe gisa aurkeztu, B16: 99ren ondoren B16: 100 emanez gero poemak erabateko zentzua hartzen duelakoan.

<sup>70</sup> *gal equidan*: ‘galdu zitzaidan’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>71</sup> *echi*: ‘utzi’; Lazarragak Lazarragak *itxi* forma erabiltzen du gehien, eta hiru bider bakarrik aurkitu dugu *etxi*: *echi* (B16: 105), *extaçü* (A29: 58), *echiric* (A29: 66). Cf. Lcc “dexar, *echi*, *uzzi*”, bigarrena (*uzzi*) B eskuak erantsita.

<sup>72</sup> *cidan*: *Cidan* forma ez da hain bakana eskuizkribuan (cf. *cidan* 9 aldiz eta *eustan* 3 aldiz).

<sup>73</sup> *arc*: Amoreak, hain zuzen.

<sup>74</sup> *leguidala*: *leguidala ... seguidu*: ‘segituko zidala, atzetik joango zitzaidala’; XVI. mendeko autore gehienek *l-* aurizkidun hipotetikoko formak erabiltzen dituzte iraganeko edo hipotetikoko aditz nagusiek gobernatu mendeko konpletibo, denborazko, final, zirkunstantzialetan. Askotan forma hauek zeharkako estiloa markatzen dute: *erregutu eusan bere emazteari eugui leguiala contu andia Silverori bear ebena emaitiaz* (AL: 1142r), *Egun baten, bada, bere bideti joeala, topadu çan arçai bigaz, ceñai Silviac itaundu eusten nora lloacen* (AL: 1147r), *Ceruetaco Erregueari / oy dira encomendadu / suplicaetan liçatela / nay lequiela lagundu* (AL: 1154v), *Egun ascotan nic eguin nagon / modu ascotan erregua, / arren, osatu nenguiala / a liçan guero medicua. / Errespuesta emayten cidan / liçala nesca onestua, / ayta-amaac liqueoela / berebico afrontua* (A21: 5-12), *Baeguion ayteac erregutu / gau baten arren lagun leguiola, / cerren aseguin andi leyola* (B3: 31-33), *Ama emazte luyen ala ez nahi nuque galdata* (Etx III, 17), *Fray Vicentec esala, Fedea cina liçala* (Fray 171). Azpimarratu behar da Lazarragaren testua agertu aitzin erabilera horren lekukotasunak biziki urriak zirela mendebaldeko testuetan.

<sup>75</sup> *alabala*: Ez dugu aurkitu *alabala* honentzat azalpen egokirik. Pentsa liteke gaztelaniazko *a la bala* izan litekeela, hots, ‘bala batek bezala (segitu, atzetik joan)’, baina ez dugu aurkitu gaztelaniaz halakoan lekukotasunik.

<sup>76</sup> *contrarioçat*: ‘etsai legez’.

trabajadua<sup>78</sup> azquero,<sup>79</sup>  
 inox dicharic eztudala<sup>80</sup>  
 bencedoreçat atabala  
 jo jaguiteco<sup>81</sup> sendoro.

115

Desdichaduau dichaetan<sup>82</sup>  
 beti narabil<sup>83</sup> galduric;  
 acordadu dot erietan,<sup>84</sup>

<sup>77</sup> *caso au dala*: ‘kausa hau dela, honen kausaz, hau dela eta’; cf. *OEH*, s.v. *kasu*: “(Precedido de *-(e)la*). A causa de, con ocasión de”. Egitura hau bi aldiz dago Lazarragaren eskuizkribuan (*caso naxala* B15: 19 eta B16: 111).

<sup>78</sup> *trabajadua*: ‘nekatua’; cf. *DAut.*, s.v. *trabajado*: “Vale también cansado, molido del trabajo, por haberse ocupado mucho tiempo u con afán en él”.

<sup>79</sup> *azquero*: ‘geroztik’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoak adierazteko (*geroztik*, *momentu honetatik/hartatik...*), nagusiki “erakuslea + instrumentala + *-quero*” eta “partizipio + *azquero*” egiturak erabiltzen dira. Hemen *azquero* hutsa dugu.

<sup>80</sup> *eztudala*: *du-* moldeko *\*edun* aditzaren formak lau baino ez dira eskuizkribuan: *dut* (AL: 1152r), *duçu* (A27b: 5), *duen* (A27 b: 40), *eztudala* (B16: 113). Gutxi dira, orobat, *de-* eta *deu-* moldeetakoak.

<sup>81</sup> *jo jaguiteco*: ‘hari jo egiteko, hari jotzeko’; *jagui-* hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Askotan aditz trinkoa edo beregaina da, baina laguntzaile gisa ere agertzen zaigu, partizipioa aditz nagusizat harturik. Bestalde, gehienetan aditz jokatugabea iduri du: *Jri remedio emun jagui!* (AL: 1138r), *Nachaçu suplicaetan nay daquiçula, ene peneau oneyn andia dan azquero, remedioa emun jaguiten* (AL: 1152r), *eta prometidu even biac ez alcarri ichi jaguiteco, arean da Sirena ta Silvia idoro artean* (AL: 1152v), *cegaiti artu ez daiquean / oy beste servidoreric; / oy alcançadu daiqueano / ez artu jaguin celoric* (A14: 99-102), *Orain dama bat servietan dot, / lindea parebaguea; / oy eztauco meresciduric / niganic ancietea / eguin deustan mesedeac / servidu jaguin artean* (A24: 131-136), *Jaun Cerucoac / çuri bidaldu jaguinic; / adietaco / badeçu miramenturic, / ez consentidu / ceure lurrean gaxtoric* (A28: 165-170), *Aren aoti berba oa / neguianean aditu, / reberencia jaguiteco / belaunoc neben incadu* (B12: 13-16), *Apea nindin çaldirean; / guchi bat apartaduric / berba neguion lurrerean, / neurau nengoan lecurean / reberencia jaguinic* (B16: 66-70), *Beti nabil caso au dala / trabajadua azquero, / inox dicharic eztudala / bencedoreçat atabala / jo jaguiteco sendoro* (B16: 111-115), *guztia berba jaguinic* (A29: 50), *modu onetan / oyta berba jaguinic* (A29: 79-80). Edozein kasutan, beti agertzen da iragankor gisa eta datibozko argumentu batekin. Uste dugu aditz ezezagun horren azpian *egin* aditzaren forma hirupertsonala (NORK-NORI-NOR) ezkututzen dela.

<sup>82</sup> *Desdichaduau dichaetan*: Lazarragaren eskuizkribuan, hiru esamolde antzeko aurkitu ditugu: *dichoso desdichaetan* (A17: 118), *desdichaduau dichaetan* (B16: 116) eta *dichaz desdichadua* (B20: 25). Gaztelaniaz Antonio de Guevararena ere esanguratsua da (*ap. CORDE*): “Pues soy el príncipe de todo hombre atribulado, aunque quieres, no puedes escapar de mi señorío, porque si tú te queexas ser **desdichado en dichas**, yo me preçio ser **dichoso en desdichas**” (Fr. Antonio de Guevara, 1528, *Libro áureo de Marco Aurelio*).

<sup>83</sup> *narabil*: ‘ibilarazten nau’; hemen, *ibili* aditzaren kausatiboa da *erabili*.

<sup>84</sup> *erietan*: ‘ezproiatzea’; beste behin dago *erietan* eskuizkribuan: *Igo eguin laster, ece / eurc dacusquen erietan* (A25: 9); han ‘zauriturik’ esan nahi du. Hemen, aldiz, ‘zaldia ezproiatzea’ esan nahi du; hori da,

desiertuco errietan<sup>85</sup>  
ez ebilterren<sup>86</sup> salduric. 120

Çazpi egun<sup>87</sup> da nabilela  
lecuti<sup>88</sup> despediduric,  
ene çaldiau dabilela  
berau pilotu berau bela,  
jan бага fatigaduric. 125

Basoetati ebili naiz,  
ez erri celaietati;<sup>89</sup>  
ni guiçonegaz<sup>90</sup> batu ez naiz;  
ia-ia<sup>91</sup> casi chitez<sup>92</sup> il naiz;

---

hain zuzen, gaztelaniazko *herir* aditzaren adieretako bat (*apud CORDE*): “Las espuelas de la jineta han de ser un poco largas de astas, porque sin descomponer los pies se pueda herir al caballo” (Diego de Contreras, c. 1620, *Advertencias para torear*).

*Acordadu* ‘erabaki, onartu’ aditzak bi joskerak (-*tzea* eta -*tzen*) onartzen ditu eskuizkribuan. Bost bider aurkitu dugu osagarria -*tzen* forman: *acordadu eben joaten* (AL: 1146r), *acordadu eben arçai aberaspatequin jarten arçaiçat* (AL: 1146v), *acordadu eben aen esque joaten* (AL: 1151r, AL: 1151v), *acordadu dot erietan* (B16: 118). Bi bider erabili du osagarria -*tzea* forman: *acordaetan ez dodala / ain laster ezconquetea* (A24: 173-174), *acorda badeçaçu ucacea* (B3: 89).

<sup>85</sup> *errietan*: ‘lurretan’; cf. B16: 94 bertso-lerroko oharra.

<sup>86</sup> *ebilterren*: ‘ibiltzearren, ibiltzeagatik’; -*arren* atzizkiak hiru aldaera ditu eskuizkribuan, -*gatik* atzizkiaren baliokide gisa aditz-izenari gehituta, mendebaldeko tradizioaren arabera: -*tearren*, -*etarren* eta -*t(z)erren*. Ikusi *etortearren* (A3: 13); *probaetarren* (AL: 1139r), *castaetarren* (A14: 77), *contentaetarren* (B3: 47); eta *ecusterren* (AL: 1142r, AL: 1145r, AL: 1147v), *iragaitarren* (AL: 1146r), *alabacerren* (A6: 41), *iracasterren* (A14: 47), *servicerren* (A14: 115), *ebilterren* (B16: 120). Izenari gehituta ere aurkitu dugu, -*gatik* atzizkiaren baliokide, lau bider: *amorearren* (AL: 1143v, A7: 89, B20: 14), *dirurren* (B15: 60).

<sup>87</sup> *Çazpi egun*: ‘egun asko’; *zazpi* ‘asko’ adierazteko erabiltzea literatura tradizionalen ezaugarri ezaguna da.

<sup>88</sup> *lecuti*: ‘herrixkatik’; hemen *lecu* ‘herrixka’ da: cf. Lcc “aldea, *lequa*, *aldea*”. Eskuizkribuan gutxienez bederatzi aldiz aurkitu dugu *lecu* esanahi horrekin (AL: 1145v, A7: 61, A17: 52, A23: 69, A23: 75, A23: 82, A23: 84, B16: 122, B22: 23). Beste askotan, jakina, ‘toki’ esanahiarekin.

<sup>89</sup> *erri celaietati*: ‘lur lauetatik, lur lauetan zehar’.

<sup>90</sup> *guiçonegaz*: ‘ezein gizonekin’; mugagabea da, izenen deklinabide pluralean -*acaz* atzizkia erabiltzen baita Lazarraga eskuizkribuan. Ohar bedi ezezkako testuingurua dela, bere baitako izen sintagmen balio ez-erreferentzialarekin batera doana; euskal morfologian, eta testu zaharretan are nabarmenago, balio ez-erreferentzial hori mugagabe gisa isla daiteke.

<sup>91</sup> *ia-ia*: Bertso-lerroak bederatzi silaba izateko, hiru silabatan irakurri behar da.

<sup>92</sup> *chitez*: ‘guztiz, zeharo’, oraingo honetan; ikusi B16: 15 bertso-lerroko oharra.

- eztacust beguietati. 130
- <1201v> Ciertamente au da, bada,  
donzella poderosea,  
ene mina; ta, dubda<sup>93</sup> бага,  
puntu bat encubridu<sup>94</sup> бага  
contadu diçut prosea.” 135
- Nic au onela nesonean<sup>95</sup>  
goratu eben burua.  
Jagui guindicen<sup>96</sup> arerean,<sup>97</sup>  
puntu artaric bertarean<sup>98</sup>  
illundu cidin cerua. 140
- “Ene semea”, baesadan,<sup>99</sup>  
“artu eguiçu esporçu,<sup>100</sup>
- 
- <sup>93</sup> *dubda*: ‘duda, zalantza’; *-bd-* grafia kulta gaztelaniaz erruz erabili zen XVI. mendean eta XVII. mendeko lehenengo bi hamarkadetan; hortik aurrera ia ez da agertzen.
- <sup>94</sup> *encubridu*: ‘ezkutatu, isildu’.
- <sup>95</sup> *nesonean*: ‘esan nionean’; *esan* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa. Sail honetako hainbat aditz dira Lazarragaren eskuizkribuan: *baesadan* (A25: 11, B16: 141), *baeson* (B3: 34, B3: 40), *nesonean* (B16: 136), *esan* (B21: 76).
- <sup>96</sup> *Jagui guindicen*: ‘jaiki ginen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra. *guindicen* hau bakarra da testuan; beste autoreetan ez dugu bokalak asimilatuta dituen forma hau aurkitu, baina *gindezen* bera ugaria da testu zaharretan (Otxoa Arin, Larramendi, Mendiburu, Mogel, Uriarte...).
- <sup>97</sup> *arerean*: ‘handik’; *arean* / *arerean* / *arereanic* formei buruz, ikusi B16: 84 bertso-lerroko oharra.
- <sup>98</sup> *puntu artaric bertarean*: ‘puntu hartatik bertatik’; *bertarean* bakarra da testuan, eta ez dugu inon aurkitu beste lekukotasunik. Dirudienez, errima zaindu beharrak eragin du sintagma berean bi atzizki desberdin agertzea (*-ric ... -rean*).
- <sup>99</sup> *baesadan*: ‘esan zidan’; *esan* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa. Sail honetako hainbat aditz dira Lazarragaren eskuizkribuan: *baesadan* (A25: 11, B16: 141), *baeson* (B3: 34, B3: 40), *nesonean* (B16: 136), *esan* (B21: 76). *Ba-* atzizkiari buruz, ikusi B16: 6 bertso-lerroko oharra.
- <sup>100</sup> *esporçu*: ‘adorea’; cf. *OEH*, s.v. *esportzu*: “Ánimo, fuerza, apoyo, consuelo”.  
Objektu funtzioan dagoen izena bere forma mugagabeen dugu hemen (*esporçu*). Mugagabearen erabilera arkaiko hau, izen zenbakaitz edo interpretazio pluraleko zenbakarriekin azaleratzen dena, ekialdeko hizkeretan da bizirik egun (cf. Oihenarten 279. *Inzaur duenak jateko, aurkit diro harri hausteko* eta egungo “badu indar” bezalakoak). Badirudi, Lazarraga lekuko, XVI. mendean hedadura handiagoa zuela ezaugarri honek. Eskuizkribuan gutxienez halako lau aurkitu ditugu: *Romeria bat eguiteco*, / *jauna, daucat nic gogo* (AL: 1147r), *neurc jaquin ez arren, badogu diru* (B3: 17), “Ene

çugaz aseguin ar deçadan;  
gachori repara deçadan  
yelmoori eronçu.<sup>101</sup> 145

Ainbat tenpora dan azquero<sup>102</sup>  
çabilçadela<sup>103</sup> galduric,  
eben<sup>104</sup> aseden<sup>105</sup> eta guero  
joan çatezque,<sup>106</sup> caballero,  
andiro mejoraduric.” 150

Galdu balegui<sup>107</sup> guiçon batec  
beguietaco bisteia,  
guero medicu andi batec  
[...]

---

*semea*”, *baesadan*, / “*artu eguiçu esporçu*” (B16: 142) eta baldintzazkoa den *Coplaric ondo ordenaet[an] / abilidada badoçu* (B12: 38).

<sup>101</sup> *eronçu*: ‘erantzi ezazu’; cf. Lcc “desnudar, *eronçu*”.

<sup>102</sup> *dan azquero*: ‘baita, denez’; *gero* adverbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpaus kausaletarako *-n guero* eta *-n azquero* egiturak erabiltzen ditu; *-n azquero* horietako bat da hau.

<sup>103</sup> *çabilçadela*: ‘zabiltzala’; *-de* aditz-morfema pluralgilea bost aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan: *çagode* (A5: 2), *çarade* (AL: 1144v, B16: 91), *dirade* (A1: 52), *çabilçadela* (B16: 147) eta *gabilçaden* (A17: 93).

<sup>104</sup> *eben*: ‘hemen’.

<sup>105</sup> *aseden*: ‘atseden egin (ezazu), atsedeen har (ezazu)’; eskuizkribuan beste behin agertzen da aditz moduan erabilia: *bere posa asedetea* (B15: 75). Cf. *OEH*, s.v. *atseden* II: “*Atsedenez atsedeen dait*. “Con morir descansaré”. *RS 252 (dait funciona aquí como aux. trans. [...] Atsedeteko batek mundu onetan, edo ar dezakean deskansua artzeko, ezi bear ditu [...] bere pasioak. Mb JBDev 170*”.

<sup>106</sup> *joan çatezque*: ‘joan zaitetz (gero)’; aginterazko adizkia *-ke* atzizkiarekin osatzean, aginduaren betetzea geroan kokatzen da, solas unetik kanpo. Geroaldiko agintera oso ohikoa da *Refranes y Sentencias* bizkaierazko atsotitzen bilduman (*çe eyquec maurtuti hoeaneâ, eder eztanic calean RS 36, Gach çe erexqueoc yñori, ta emac vere a edoceyni RS 312*), eta aztergai dugun Lazarragaren testuan: *ce eucaiqueçu* (A27a: 24), *sinis eçaqueçu / ene eguia* (B9: 13-14), *Jentil onbrea, ona çatozque, / gura banoçu gozadu* (B12: 11-12) eta *arren, aguir çaytesq[ue]* (B28: 3). Bizkitartean, ez dirudi soilik mendebaldeko euskararen ezaugarria izan denik, gipuzkera eta lapurtera zaharrean (Etxeberri Ziburuko eta Etxeberri Sarakoa) ere biltzen baitira gisa horretako formak.

<sup>107</sup> *Galdu balegui*: ‘galduko balu’.

## OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** 1-85 bertso-lerroak testu nagusiaren eskuinean idatzita daude, orriaren aurkian, 1181r-1182r-1183r orrialdeetan, eta 86-90 bertso-lerroak 1183r orrialdeko testu nagusiaren azpian; 1181r orrialdeko sei ahapaldiak zenbatu gabe daude, baina hurrengokoak 7rekin hasten dira. **6** banecarren escu bestean] *Escu bestean banecarren* idatzi du lehenengo, baina *banecarren* zegoen lekuan tatxatu eta bertso-lerroaren hasieran idatzi du, lerroartean. **9** gorpucean] *-u-* letraren azpian bi letra daude (agian *-er-*). **11** Conpañiaçat] esk. *conpaniaçat*. **16** Neroeala forma onetan] *formaonetan nioeala* idatzi du lehenengo, baina hori tatxatu eta beste hau idatzi du. **18** nic] *-c* letraren azpian beste letra bat dago. **19** guero] aurrean *eta* marra batez tatxatuta. **34** descubriduric jafindaçu] goian beste lerro bat dago (*relacio bat eguidaçu*) marra batez tatxatuta. Bestalde, *j-* letra *c-*ren gainean idatzi da; agian lehen *descubriduric ifindaçu* idatzi zen eta *ja* beranduago erantsi da. **38** cer] eskuizrkibuan *çer*. **39** cerren] esk. *ceren*. **49** alacoa] aurrean letra bat tatxatuta (agian *o-*). **54** banenguian] esk. *benenguian*. **61** arpa ... janciric] ahapaldi honek beste bertsio bat bide zuen lehen lehenago: *arpa eder bat escu bietan / figuraz esculpiduric / suga luce bat bularretan / urregorritzco sagarretan / catea leguez janciric*. || arpa eder] goian *escubieta*, marra batez tatxatuta. **63** urregorritzco tablaetan] lerroartean; lerroan *suga luce bat bularretan*, marra batez tatxatuta. **64** biboracho bat bularretan] lerroartean; lerroan *urregorritzco sagarretan*, marra batez tatxatuta. **65** collare] lerroartean; lerroan *catea* tatxatuta. **67** guchi] lerroartean; lerroan *neureaz* tatxatuta. Hutsaz ohartu eta benetako lerroa hitz honen gainean idatziz hasten da. **73** oñ-] esk. *onn-*. **81** Jagui çan bere sillarean] goian hiru lerro tatxatuta: *lenaengoa jaquin begui / rreyna poderosea / banabilela al banegui* (azken lerroaren irakurketa ez da guztiz ziurra). **1201r** 91-110 bertso-lerroak testu nagusiaren eskuineko zuriunean idatzita daude. **91** baçarade] hitz-bukaeran *-n* tatxatuta, ziur aski *-n* hori ondoko hitzen eraginez idatzi zelako. **96** Copla] beste tinta batez (ziurrenik 101-120 bertso-lerroak idatzi dituen tinta berberaz) erantsita. **98** uste] ez da irakurketa segurua, batez ere azken bi letrei dagokienez. **100** amoradua dicha бага] *Joan Perez de Laçarraga* idatzi da lehenengo tintaz; hori tatxatu eta *amoradua dicha бага* idatzi du 101-120 bertso-lerroak idatzi dituen tintak; azkenik, hori tatxatu gabe, *Joan Perez de Lazarraga* idatzi du norbaitek berriz. Ondoren, 12 bertso-lerro datoz (B24). **1200v** 111-115 eta 126-130 bertso-lerroak prosazko zatiaren azpian daude, erdiko eta eskuineko zutabeetan, hurrenez hurren; gainerako testu zatietatik marra argi batek bereizita dago. 116-125 bertso-lerroak, berriz, prosaren gainean, eskuineko zutabeetan, 3.ean alegia, bata bestearen gainean, hauek ere marraz gainerakotik bereizita. **111** beti nabil casoau dala trabajadua azquero] lehenbizi beste hau idatzi du: *casoau dala beti nabil / azquero trabajadua*. Gero aldaketak egin ditu, errima lortzeko: *beti nabil* tatxatu eta bertso-lerroaren ezkerrean idatzi bigarren aldiz; *azquero* tatxatu eta ahapaldiaren eskuinean idatzi, lehenengo eta bigarren bertso-lerroen artean. **126** basoetati] beste hau idatzi du lehenago, goiko lerroan: *ene gachonec donzellea / d.... p.i.* Horiek tatxatu ondoren idatzi du ahapaldia. Gainera, 24 ahapaldi-zenbakia ere ezabatu du, eta 26 idatzi. **129** ia-ia] esk. *ya ja*. **1201v** Testu nagusiaren eskuinetara erantsi dira 131-153 bertso-lerroak. **136** au] *-u* beste letra baten gainean idatzi

da (agian *-n*). **151** Galdu] 4º ahapaldi-zenbakia dauka ahapaldi honek (eta ez 31, beharko lukeen bezala), ziur aski aurrekoan, 30.ean, 3º irakurri duelako.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B16 – Egun batean nendorrela...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago